

Berkeley, George

Mistikak makina sorterazi du natura gi-zadiaren heinean ezarri nahiz. Zientzi ikerketek *gizakia munduaren nagusi bihurtu du-te, tresneria guztiek halako gorputz handi bat ematen digutela. Araberakoa behar luke izan *arimak, *moralaren eta *erlijioaren bidez. Ez gatzaiykiola lot moral hetsiari bakarrrik, hau gizarteak manatu nahitaezko legeek egina delako; baina bai moral irekia-ri, honek ongia sorterazten bait du entzun eraziz zuhurren, herioen eta sainduen deia. Ez egon erlijio estatikoak eskaintzen dizki-gun *ohitura eta errito hutsetan, baina bai sar erlijio indartsuan, gure baitan bizi den goragoko indarrak sustatu erlijioan.

Gure bizian nahasirik daude *askatasuna eta halabeharra eta biek *aurrerapenaren bidea irekitzen digute.

Erramun Baxok

Berkeley, George

Irlanda-n 1684ean jaio eta Oxford-en 1753an hila. Arazo *teleologiko eta *metafisikoez arduratu zen, *deismoa eta librepen-tsaizaleak kondenatu nahian. 1734ean apezpiku egin zuten. Korronte filosofikoen artean leku berezia hartzen du beraren doktrinak, batzu *idealismo sentsualista eta beste bat-zu, berriz, *izpiritualismoa deituak. Jato-rrizko ideiak ezeztaturik, pentsatzen zuen sentsuei emana *ezagutzaren oinarria dela, eta ez *ideia abstraktuak. Hala ere, *errea-litateko gauzek ez dute ez substantziarik ez *izpiritutik aparteko existentziarik. Honi lotua dago beraren tesi ezaguna "Esse est percipere et percipi", errealtatean existi-zen dena, edo *pertzepzioaren *objektuak edo *subjektuak direla adierazten duena. Beraz, materiak existitzeko behar duena zera da: bera hautematen duen edo bera pertzep-zioaren objektu bihurtzen duen izpiritua. Izpiritu hori Jainkoa da, zeren gizakiak, nahiz eta hauek gauzak hauteman, ezin bait dira beti gauzen aurrean egon haien existi-tentzia bermatzeko. Obrak: Treatise Concerning the Principles of Human Knowledge, 170; Three Dialogues between Hylas and Philonous, 1713; Siris, a Chain of Philosophical Refle-xions and Inquiries Concerning the Virtues of Tarwater and Diverse Other Subjects, 1744.

Bernard, Claude

Saint-Julien-en (Rhône) 1813an jaio eta 1878an hila. Parisen irakasle. *Metodo espe-rimentala aztertutik zuten; medikuntza eta *psi-kologiaren teoriak ere landu zituen, *zienti-zien mailan behaketek, esperimenduek eta *arrazonamenduek nola jokatzin duten adiera-zi nahirik. Eragin handia izan zuen joan zen

mendeko *epistemologia eta metodologian. Obra: Introduction à la médecine expérimentale, 1865 (espainieraz itz.: Introducción a la medicina experimental, 1944).

Bernardo Chartres-koa

"Bernardus Cartonensis" ere deitua, 1130. urte inguruan hil zen. Chalcidius-ek Platon-en Timeo-ri egindako iruzkina zela bide, platonismoa eta aristotelismoa hurbil-tzen sailtu zen, "Chartres-ko Eskola"ri bul-tzada berri bat emanez. Gilermo Champeux-ekorekin batera, *unibertsalak eta *Platon-en ideiak gauza bera zirela aldeztu zuen. Beraren idazlanak galdu egin ziren eta Juan Salisbury-ko Metalogico-n eta Policraticus-en agertzen diren zati batzu besterik ez ditugu ezagutzen.

Bernardo Claraval-ekoa

Fontaines-ko gazteluan, Dijon inguruan, jaio zen 1091n eta Clairvaux-en hil 1153an. 1112an monje sartu zen eta 1115ean Clair-vaux-eko abate izendatu zuten. Gogor ihardun zuen Abelardo-ren aurka. Mistika-bizitza lan-du eta defendatu zuen, benetako esperientzia mistikoa lauso zezakeen edozeren aurka joka-tuz. Honela uler daiteke "filosofo huts-gar-bi" enenganako, hots, dialektikarienganako zeukan betiko aiherra. Obrak: De gradibus humilitatis et superbiae, 1121; De diligendo Deo, 1126.

Bernstein, Eduard

Berlin-en 1850ean jaio eta 1930ean hila. *Sozialismoa mailaz maila edo *eboluzio bi-dez lortu behar dela sostengatzen zuen eta ez *iraultza bidez. Erakunde demokratikoen barruan sozialismoa ekintza baketsuen bidez eraikitzea aldeztu zuen. Beraren doktrina, errebisionista deitua, batipat Karl Kautsky-k kritikatu zuen. Obra: Zur Geschichte und Theorie des Sozialismus, 1901.

Berraragiztapena

India-ko *pentsamendu filosofiko-erli-jiozkoan oinarritzko kontzepturik nagusieta-koa eta oso hedatua. *Budismoaren bidez Txi-na, Japonia eta bestetara ere zabaldu zen.

Grezia zaharreko *"metempsikosi"ari bu-ruzko irakatsiarekin oso kidekoa da; baina batzuren ustez, bi kontzeptuak bereizi beha-rra dago, berraragiztapena *gizakitatik gi-zakitarako arimaren *transmigrazioa izango litzatekeelako; Greziarren eta Mendebaldeko beste filosofietan, berriz, transmigrazioa animalietara eta edozein bizidunetara gerta daitekeelako.

India-ko filosofien arabera, berraragiztapena betiereko itzulera kosmikoarekin batera doa, eta alde honetatik oinarri kosmologikoa du; baina bereziki antropologikoa eta erlijiozkoa da *hinduismoaren eta *budismoaren arabera, haragiztapena.

*Karmaren legeari loturik, betiereko *arima behin eta berriro *gorputz berria hartzera behartuta dago; horregatik birjaiotzea ere dei daiteke, sanskritoz deitzen den bezala. Prozesu honetan jarraitu beharrean da, *Nirvana-ra edo *Moksa-ra (azken buruko askapenera) iritsi arte, *samsara edo biziera-katea horren barruan, beheko bizieratik goragokoetara joanez.

Berraragiztapena frogatzeko, mirarizko haurrena, oroitzapen edo ezagutza jatorrizkoak, nor bere gizarte-mailari lotuta jaiotzea, etab. aipatzen dira.

Berraragiztapenaren katea hausteko bi-deak desberdinak dira, erlijio bakoitzaren arabera: disziplina eta aszetikaren bidez budismoan, nor bere izaeraz eta egoeraz jabetuz, *Vedanta eskolaren arabera, etab.

Paulo Agirrebaltzategi

Ik. Ekialdetar filosofia; Budismoa; Hinduismoa.

Bertalanffy, Ludwig von

Atzgersdorf-en (Austria) 1901en jaio eta 1972an hila. Estatu Batuetako biologoa eta natur filosofoa. "Biologia teoriko"aren sortzailea, bere printzipioak psikologia, soziologia eta antropologian erabiltzen saiatu zena. Obrak: Modern Theories of Development, 1933; Kritische Theorie der Formildung, 1928 (espainieraz itz.: Teoría del desarrollo biológico, 2 tomo, 1934).

Bertutea

Grekoentzat bertutea, gauza bakoitzari bere izaeraren arabera dagokion bikaintasuna da, hari bere eginkizuna ondo betetzeko beharrezkoa zaiona. Latindar etimologiak (kalip, balore) erakustera ematen du ongiaren egiteko behar dela indar iraunkor bat, ahal baten antzeko zerbait, *gizakiaren baitan kuraiarekin zerikusirik baduena. Izan ere, gizakiagan bertutea *arrazoïaren ekintzari eta honek zuzentzen dituen azturei darizkien ahala eta bikaintasuna da.

Bessarion, Basilio

Trebisonda-n jaio eta 1395-1472 urte bitartean bizi izandakoa. *Errenazimentuko filosofo italiarra. Aristotele-ren Metafisika eta, halaber, Teofrasto eta Jenofonte-ren idazlan batzu itzuli zituen eta Greziako beste autore batzu Italia-n ezagutzera eman.

*Aristotele eta *Platon-en doktrinak hurbiltzen saiatu zen, biengan aurkitzen dugun oinarri bera erakutsi nahirik. Obra: Adversus calumniatorem Platonis, 1469.

Bestetasuna

Sin.: Alteritate

*Berberatasunari kontra jartzen zaion kontzeptu hau, Filosofiaren Historian, *Platon-ek eta eskolastikoek erabili zuten arlo metafisikoetan, baina batez ere *Hegel-ek definitu zuenetik izan da emankorra *gogoeta filosofikoetarako. Hegel-en bestetasuna kontuan hartze honen esanahia zera da: *subjektua, ezagutzetarako, ez dela autokontzientziatik abiatzen, beste subjektuen *existentziatik baizik. Descartes-en ustez, lehenengo *ziurtasuna bakoitzak bere existentziaz ohartzean lortu zuen; Hegel-ek zioenez, berriz, ezinbestekoa da beste subjektuak agertzea, gero bakoitzak bere baitako kontzientzia izan dezan. Bestetasun hori, beraz, beharrezkoa da gizakia *dialektikaren bidez *arartegabeko eta *kontzientziarik gabeko bizitzatik ateratzeko eta bere esentziaz birjabetzeko. Etikan bestetasuna *erlazioaren kategoriaren funtsa da: "ni" a ez denaren egoera nirekiko desberdintasunean hautematen denean. Batea ezabatzearen orde, "gu" arteko erlazio berriak sortzen dira. Mutur-muturreko bestetasuna sakratuaren *esperientzia atzematen da, R. Otto-
k zioenez.

Ik. Berberatasuna.

Betebeharra

Sin.: Eginbeharra

Etikaren alorrean erabiltzen da kontzeptu hau, eta batzutan eginbeharren (deber/ devoir) sinonimo bezala erabiltzen da; beste batzutan, berriz, *beharraren ezaugarri nagusienetako bat bezala hartzen da, behar horrek behartu egiten bait gaitu, behartze hori betebehar edo obligazio bihurtzen da; baina kontuan izan behar da etika barrutiko behartze hori ez dela erabatekoa, ez dela Naturan ematen den beharrezkotasunaren antzekoa, gizonaren askatasunak iruzur egin bait diezaike behar horri eta berorri darrion obligazioari.

Eta zein da obligazioaren sorburua? Zein, beraren oinarria? Arazo honi buruzko erantzunak desberdinak dira: batzuentzat sorburu hori norbera den bitartean, beste batzuentzat *gizartea, edo *Jainkoa edo *babilio batzu izango dira.

Ik. Beharra.